

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko azaroaren 7a. IX. urtea. 2.429. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Zeinu hizkuntzan egindako zinema iritsiko da hirugarrenez, Tolosara

Gainditzen gorren elkarteak antolatzen du zeinu hizkuntzan egindako film laburren jaialdia; lehen filma bihar ikusi ahal izango da: 'El abrazo de los peces'

Egun nagusia larunbatean izango da, sari banaketa eta guzti; Espainiako, Italiako, Ingalaterrako, Ukrainako eta Frantziako lanak ikusi ahal izango dira o3



Alberto Etxeberria, Ibai Iriarte, Julian Rodriguez eta Gurutze Imaz, atzoko aurkezpenean. I URKIZU

Bonbereneako zigiluaren hamar urteko uzta bildu dute, liburu batean

'Bonberenea Ekintzak 2002-2012, Doinuen Hamarkada' izenpean atera dute lana; katalogo berezi bat da eta musika ere badu entzungai o4

Kultur ekitaldi ugari, Aduna, Amezketan eta Gaztelun

Udazkena kulturaz blai iritsi ohi da eskualdera; ondorengo egunetan film emanaldiak, dantza ikuskizunak eta abar izango dira ikusgai o6

SUMINISTROS 35 urteko esperientzia

YANCI ITURGINTZA eta BEROKUNTZA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Baimendutako instalatzaile eta mantentzaileak

Mugi zaitezte!

Euskal Autonomi Erkidegoko egurrezko eta pelleteko kalderentzako diru laguntzak hilabete honetan bukatzen dira eta.

- BIOMASA
- AEROTERMIA
- GEOTERMIA
- EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

IRTENBIDE ENERGETIKO BERDEAK

Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa

Dirulaguntzak tramitatzen ditugu

Zalduka Industrialdea - 2 - IRURITA (BAZTAN) 948 580 109

ZERBITZU TEKNIKORIA
BANATZAILA OZUNTZA

TATANO



Brady Allred maisuak abesbatzei zuzendutako tailer bat eskainiko du

‘Amerika kantuan: Korurako musika’ tailerra eskainiko du, Tolosako udal musika eskolan

Enertiz Maiz Tolosa

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta, asteburuan, Udazkeneko XIX. Koru Tailerra izango da, Tolosan. Badira urte batzuk federazioak ikastaro hau antolatzen duela, eta aurtengoa, *Amerika kantuan: Korurako musika Brady Allred maisuarekin* izango da.

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatzen duen ikastaro hau ospe handikoa da. Urtero asteburu batez Tolosan egiten dute tailerra, eta ia ez esaterako, musika ortodoxoaren ikastaroa egin zuten. Espainiatik etorritako ikasleak izaten dira bertan parte hartzen dutenak.



luz, Theodora Pavlovitchek eskaini zuen ikastaroa. A. IMAZ

Eduardo Mokoroa udal musika eskolan izango dituzte klaseak. Larunbat goizean, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:30etik 20:00etara. Igande goizean, 10:00etatik 14:00etara egingo dute saioa.

Brady R. Allred, Salt Lake Cityn, *Utah, Salt Lake Choral Artists* erakundearen zuzendari artis-

tikoa da. Nazioarte mailan bere bikaintasunagatik ospe handia lortu du. Mundu zabalean zehar aski ezaguna da, batez ere, koru kantuan duen dotoretasunagatik. Allred doktorearen taldeak, jaialdi hobereetan parte hartzeragor gonbidatuak izan dira, eta sari handiak jasoak dituzte.

Euskal Herriko IV. Frisoi Txapelketa, larunbatean

Urtero bezala Tolosako Ferialekuan elkartzeko dira ganadu zale guztiak; goiz osoan zehar egongo dira

E. Maiz Tolosa

Azaroaren 10an, larunbatean, IV. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa egingo da, Ferialekuan. Lehenengo aldiaren bezala, txapelketa honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ustialekuek parte hartuko dute.

Bertan, hobekuntza genetiko-

ren eta ganaduzaleen egumeroko lanaren bidez lortu diren lorpenak ezagutzera emango dira. Bestalde, azoka eremuan sektoreko enpresen postuak ere jarriko dituzte. Beraien produktuen edota zerbitzuen berri emateko prest egongo dira.

Txapelketa honen antolatzaileak Tolosako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira. Ganadu zaleen helburu garrantzitsuenak kalitatezko esnea ekoiztea da. Goiz osoan zehar, ganadua, Ferialekuan egongo da, eta herritar guztiak gerturatzeragor gonbidatu nahi dituzte.

• tolosa@hitza.info

‘Nolakoak diren nerabeak, aurreiritziak eta mitoak’ hitzaldia, bihar

E. Maiz Tolosa

Orixe Institutuak DBHko 1., 2. eta 3. mailako gurasoentzat hitzaldi ziklo bat antolatu du. Lehena, bihar, hilak 8, izango da: *Nolakoak diren nerabeak, aurreiritziak eta mitoak*. Hizlari lanak Izar Arregi psikologoak egingo ditu.

Saioak institutuan (Gorosabeleko liburutegian) izango dira, 18:30etik 20:00etara. Bigarren saioa, hilaren 22an, *Drogamenpekotasunaren prebentzioa* izango da, eta abenduaren 13an, *Komunikazioa seme-alabekin* jorratuko dute. Antolatzeko Tolosako Udalaren laguntza izan dute.

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKAERA

Etxeko lanak. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa dutenek 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Transgenikoak II



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Orain bi asteeko transgenikoen gaiak izan duen arrakasta ikusita, aste honetan ere elikagai transgenikoei buruz arituko gara, baina oraingoan, animalietan ipiniko dugu gure lupa eta ez barazkietan. Izan ere, transgenikoak ez dira barazkiak soilik, gaur egun animalia transgenikoak ere ugari dira, eta guk uste duguna baino gehiago!

Barazki transgenikoak, elikagai errentagarri moduan erabiltzen direla ikusi genuen aurreko astean, berririo irakurri nahi duenak, *bioaniztasunetik.com* helbidean dituzten artikulu guztiak eta informazio gehigarria. Animalia transgenikoak, ordea, gaur egun arte behintzat, gehienetan ez dira elikagai modura erabiltzen, eta beraien erabilera nagusia medikuntzan eman ohi da.

Guztietan harrituko zaituena, ordea, animalia transgenikoei gizakiaren geneak (gure barne liburuaren letrak) izan ohi dituzte beraien barrenean txertatuak. Honen esan nahi du, animalia hauek, giza gene horien bidez, gizakiak bere barrenean sortzen dituen hainbat molekula sor ditzaketela, eta (hemen zeok koska!) animalia transgenikoak, benetako sendagai fabrikak bihurtu ahal direla. Hementxe adibide batzuk. Biztanleriaren zati bat diabetikoak da, eta dakizun bezala, diabetikoek intsulina eskasa sortzen dute eta diabetikoen odoleko glukosa altua izan ohi da. Ondorioz, medikuak analisisetan izartxo bat ipintzen du. Pertsona hauek, pilulekin edo orratzaren bidez eman behar diote beraien gorputzari falta zaien intsulina. Baina intsulina hau nonbaitek lortu behar da. Hasiera batean bakterien bidez eta kupela erraldoi batzuetan sortzen zen intsulina, baina oso garestia zen prozesu konplexu hau. 2007an ordea, gizakia- ren intsulina ugari eta merkea sortzea lortu zuten Argentinako zortedun biologo batzuk, nola? Behi transgeniko baten bidez.

Laburki esanda, behiari giza- kiaren intsulina sortzen zuen genea sartu zioten. Behi hau, giza- kiaren intsulina genearen laguntzaz, bere esnean izugarriko intsulina ugari sortzen hasi zen. Hona hemen, intsulina ematen duen makina merkea, kupela bete bakterio baina askoz ere errenta- garriagoa. Nere aitona zenak esa-

ten zuen bezala, «horri buelta emaiok!!!».

Behiak ez dira animalia transgenikoen adibide bakarra, untxi transgenikoak ere badaude eta istorio nahiko barregarria ere eman dute, biologiarren mundu zoro honetan. Untxitegi batean, untxi transgenikoak ipini zituzten. Untxi hauei, argi fluoreszentea sortzen zuen medusa baten gene bat sartu zieten eta noski, untxiek ere gauean argi berde fluoreszente bat sortzen zuten. Zertarako? Untxitegiko gaueko argi kontsumoa murrizteko (untxiak argia sortzen badu ez duzu linternarik behar bera ikusteko). Beraz, untxitegi horretako jabea, argi faktura gutxiago ordainduta gustura zegoen bere untxi fluoreszenteekin.

Baina zer da tentagarriagoa gauez untxi berde fluoreszente bat baino? Horixe bera pentsatu zuten inguruko azeri, erbinude eta hontzek, eta gaur batean bueltan milioika euro kostatako untxi fluoreszente ia denak, jan zituzten. Gustura ikusiko nukeen, hurrengo egunean, untxitegi horretako jabeak zeukan aurpegia!

Untxitegitik, goazen izokinena haztegitara, bertan ere izokin transgenikoak ba omen daude eta, izokin normal bat baino bi aldiz azkarragoak eta handiagoak egiten direnak. Haztegi hauek, ordea, zirrikitu eta irteera ugari izan ohi dituzte eta urtean super izokin hauek ugari alde egiten omen du. Izokin ez transgenikoen lekua okupatzen omen dituzte. Gainera, izokina oso lurraldekoa da eta handia izateak izango du abantailaren bat, ezta? Izokin transgenikoak, bertako izokin «naturala» ordezkatuko ote du? Hurrengo izokin arrantza lehiaketak, arpoekin egin beharko ote ditugu?

Nolako etorkizuna izango dute animalia transgenikoak? Ez harritu, ene irakurle maitea, sei hanka eta sei hegaleko oilasko transgenikoak izatea etorkizunean, pentsatzen jarri... oso errentagarriak dira. Agian, eta Tolosako zenbait taberna klasikok eskertuko dute, bi mutur eta lau belarriko txerriak ere izango ditugu. Jada, lumarik gabeko oilo transgenikoak badaude, nahiz eta ez diren merkaturatu... nik dakidala behintzat! Azkena, behi azala duen txerri transgeniko batena dugu, barrukoarekin txerriki lortzen da eta larruarekin, behi larruz egindako eskularruak. Dena da errentagarria!

Ikusten duzuen bezala, soka hau oso luzea eta korapilatsua da, baina komeni da informatuta egotea. Beraz, jarraitu irakurtzen zutabexko hauek eta *bioaniztasunetik@hotmail.com* helbidera idazten. Etorkizunean, barruan mondejoak jada prestatuak dituen ardiak jaten hasten bagara ere, komeni zaigu zer jaten dugun jakitea. Etiketa bat ipiniko ote diote behintzat!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Alberto Etxeberria, Ibai Iriarte eta Julian Rodriguez, zinema jaialdiaren aurkezpen ekitaldian. ITZEA URKIZU

Nazioarteko zinema izango da entzule nahiz gorrentzako, asteburuan

Gaunditzen elkarteak, hirugarrenez antolatatu du zeinu hizkuntzan egindako film laburren nazioarteko jaialdia

Itzea Urkizu

Ikusle entzuleek nahiz gorrek, elkarrekin gozatu ahal izango dute zinemaz, asteburu honetan, Tolosan. Hirugarren aldiz antolatuko du, aurten, Tolosaldeko eta Goierriko pertsona gorren Gaunditzen elkarteak, zeinu hizkuntzan egindako zinemaren nazioarteko jaialdia.

Elkartearen hamargarren urteurrenarekin bat egingo du zeinu hizkuntzan egindako zinemaren jaialdi honek, eta aurkezpenaren, beren ibilbideaz harro azaldu dira Gaunditzen elkarteak Alberto Etxeberria eta Julian Rodriguez.

Tolosaldeko alkate Ibai Iriartek, laudorio hitzak izan ditu Etxeberria eta Rodriguezentzat, izan ere, «lan izugarria egiten dute horrelako egitaraua aurrera ateratzeko». Era berean, gorrek gizartearen egiten duten lana ikustarazteko bideetako bat dela nabarmendu du alkateak: «Garrantzitsua da, Gaunditzen elkarteak zein indar duen; talde dinamikoa da, mar txan dagoen giza taldea, finean».

Horregatik, «Tolosako kultur agenda are gehiago aberastuko duen jardueraz» izateaz gain, «gizartearen sentibiltzatu duen jaialdia da», azaldu du Ibai Iriarte alkateak.

Europako 10 aretoetako bat

Ez da ohikoena zeinu hizkuntzan egindako filmez gozatzeko aukera izatea. Zeinu hizkuntzan egindako zinema, batez ere, Europan eta AEBtan ekoizten dute, eta Europako 10 hiritan soilik antolatzen dituzte mota honetako zinema jaialdiak.

Horrela, beraz, Tolosaldeko jaialdiak berebiziko garrantzia duela azpimarratu du Julian Rodriguezek: «Tolosan lehenik ere hamaika kontu antolatzen dira, baina zeinu hizkuntzan egindako zinemaren nazioarteko jaialdi hau, gure aberastasunaren adierazlea ere bada». Bide honetan, Tolosa erreferentzia dela azpimarratu du Rodriguezek.

Lehiaketako film laburren aurretik, hala ere, egitarau zabalagoa osatu dute, eta bihar bertan, *El abrazo de los peces* filma eskainiko dute, Tolosaldeko zine klubarekin elkarlanean. Julian Rodriguezek, «gizarte osoak ikusi beharreko pelikula» dela azaldu du; alaba gor-itsua duten familia baten inguruko istorio gogorra da, eta iazko Donostiako Zinemaldian eskaini zuten. Aipatzekoa da, pelikula honetako sarreren bitartez jasotako dirua, Sevillako (Andaluzia, Espainia) eskola batera eta Donostiako Easo institutura bidaliko dutela.

Ikusle guztientzako filmak

Film laburren jaialdi honen nazioartekotasuna eta oihartzunaz haratgo, ordea, Alberto Etxeberria eta Julian Rodriguezek argi utzi nahi izan dute, asteburu honetako film laburren egitaraua mota guztietako ikusleei zuzendutakoa izango dela.

Espainiako, Italiako, Ingalaterrako, Ukrainako eta Frantziako proiektzioak ikusteko aukera izango da; nazioarteko film laburrez gain, ordea, Espainiako eta Europako zuzendari eta aktoreak ere bertaratu dira Leidor aretoan.

Gaunditzen elkarteak antolatutako zinema jaialdiak pertsona gorrei

atxerriarekin bat egingo du zeinu hizkuntzan egindako zinemaren jaialdi honek, eta aurkezpenaren, beren ibilbideaz harro azaldu dira Gaunditzen elkarteak Alberto Etxeberria eta Julian Rodriguez.

atxerriarekin bat egingo du zeinu hizkuntzan egindako zinemaren jaialdi honek, eta aurkezpenaren, beren ibilbideaz harro azaldu dira Gaunditzen elkarteak Alberto Etxeberria eta Julian Rodriguez.

atxerriarekin bat egingo du zeinu hizkuntzan egindako zinemaren jaialdi honek, eta aurkezpenaren, beren ibilbideaz harro azaldu dira Gaunditzen elkarteak Alberto Etxeberria eta Julian Rodriguez.

Uzturpe ikastolatik eta Tolosaldeko Gurutze Gorriaren taldeetik neska-mutil talde txiki bat elkartuko da kultur etxean, bereziki gazteei begira, zeinu hizkuntzan egindako film ikusteko. Jarraian, mahai-ingurua egingo dute.

Zeinu hizkuntzan egindako nazioarteko zinema jaialdiko egunetik nabarmenena izango da larunbata, ordea. Goizean goiz, 09:30ak inguruan, Tolosaldeko txorakor politenak ezagutzeko bisita egingo dute, eta besteak beste, Euskal Herria plaza, Berdura plaza, Santa Maria eliza eta udaletxe-ko eraikina bera bisitatu dituzte. Azkenik, Zerkausiko azokan ibiliko dira, 10:30ak bitarte.

Orduantxe hasiera emango diote jaialdiari, eta lehen zatian, lau film laburrez gozatzeko aukera izango da: Veronica Saenz zuzendariaren *Y yo*, Lázaro Contre-rasen *Quiero ser oyente*, Jose Manuel Franciscoren *Asalto*, eta Andrea Olindo italiarraren *Inseg-nare lan felicitá*.

Bigarren zatian, atsedendaldia egin eta gero, S. Mazzocchio ingelesaren *The allotment*, Jaime Fernandez galiziarren *¿Qué puede necesitar?*, Bartzelonako Albert R. Casellaren *96 horas* eta Antonio Cajal zaragozarraren *Una verdad injusta* izango dira ikusgai.

Arratsaldean, beste bederatzita film labur eskainiko dituzte. Lehen zatian Ukrainako Svyatoslav Suprun zuzendariaren *The pro-*

Europako 10 hiritan bakarrik antolatzen dituzte horrelako jaialdiak

Filmak guztientzat izango dira, azpitolu eta bikoizketak ere izango baituzte

tector lana, Pedro Soroa madrildarraren *Mama y café*, Elias Busonen *Codice II*, Frantziako Sambe Alexen *Le portrait* eta Gema Piriz zuzendariaren *Tu* filma ikusi ahal izango dira.

Azkenik, lehiaketan parte hartuko duten zeinu hizkuntzan egindako azken lau film laburrak honakoak izango dira: David Ellington ingelesaren *Life out there*, Tenerifeko Eugenia Arteagaren *El círculo*, Jose Ramon Domech kataluniarraren *Imperfecte* eta Ingalaterrako zuzendari Marilyn Buenoren *Gone with the time*.

Iluntzean, epaimahaiaren erabakia ezagutarazi, eta sari banaketarekin amaituko da zeinu hizkuntzan egindako zinemaren nazioarteko jaialdia. Hiru pertsona gorrek eta bi entzulek osatutako epaimahaiaren erabakia, Ainhoa Aierbe eta Goizale aktoreek jakinaraziko dute, eta sari banaketa ekitaldia 21:00etan erretirodunen egoitzan egingo duten afariak borobilduko du.

↓ Egitaraua

AZAROA 8, OSTEGUNA

- **19:15.** Chema Rodriguezen *El abrazo de los peces* filma, Leidor aretoan, Tolosaldeko zine klubaren elkarlanean.
- **21:45.** *El abrazo de los peces* filma, Leidor aretoan.

AZAROA 9, OSTIRALA

- **09:30etik 12:30era.** Ikastetxeetako haur eta gaztekoen

tzat zeinu hizkuntzan egindako pelikula, kultur etxean. Hirukideko, Uzturpeko eta Gurutze gorriko taldeak bertaratu dira.

AZAROA 10, LARUNBATA

- **09:30.** Tolosa bisitatu dute: Euskal Herria eta Berdura plaza, Santa Maria eliza, udaletxea eta Zerkausiko azoka, azkenari garrantzia berezia emanaz.

- **10:30-13:30.** Leidor aretoan emanaldiak hasiko dira: *Y yo*, *quiere ser oyente*, *Asalto* eta *Inseg-nare lan felicitá* film laburrak izango dira lehen zatian. Ordu laurdenean atsedendaldien ostean: *The allotment*, *¿Qué puede necesitar?*, *96 horas* eta *Una verdad injusta*.

- **16:30-19:30.** Arratsaldeko emanaldiak: *The protector*, *Mama y café*, *Codice II*, *Le portrait* eta *Tu*. Ordu laurdenean

atxerriarekin bat egingo du zeinu hizkuntzan egindako zinemaren jaialdi honek, eta aurkezpenaren, beren ibilbideaz harro azaldu dira Gaunditzen elkarteak Alberto Etxeberria eta Julian Rodriguez.

- **19:30.** Sari banaketa ekitaldia hasiko da, Leidor aretoan bertan. Ainhoa Aierbe eta Goizale aktoreak izango dira bertan, eta Tolosaldeko Udaleko nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ere parte hartuko dute.

- **21:00.** Tolosaldeko erretirodunen egoitzan afaria egingo dute jaialdia bukatzeko.

Herriko jaietan plazan dantza egiten ikasi nahi dutenentzat ikastaroa

Udaberri dantza taldeak urteroko helduen ikastaroa itzuli bat eman, eta plazako dantzak irakatsiko ditu

I. Urkizu

Helduei begirako dantza ikastaroak antolatuko ditu, aurten ere, Tolosako Udaberri dantza taldeak; aldaketa batekin datoz, ordea. «2012-2013 ikasturtean, eta aurreko urteetako ikasleekin hitz egin ondoren, ikuspegi berria eman nahi izan diegu ikastaroari, eta fandango eta arin-arinaz gain bestelako plaza dantzak ere irakastea erabaki dugu», azaldu dute taldeko kideek.

Horrela beraz, besteak beste, Lantzeko inauteria, Luzaidetako nahiz Lapurdiko hainbat dantza pauso ikasteko aukera izango da aurten taldeko tolosarraren eskutik. Finean, herriko jaietan plazan dantza egiteko bide egokia izango da ikastaroa.

«Orain arte helduen ikastaroek izan duten arrakastak» eraman ditu aldaketa hau hartzera: «Izan

ere, batzuek urte bete baino gehiago daramate gurekin, eta beraz, nahikoa barneratuta ditzute hasierako helburutzat genituen fandangoa eta arin-arina». Horiez gain, Udaberriko irakasleekin aritutako beste hainbatek ere, fandango eta arin-arinaz harago, bestelako dantzak ezagutzeko grina azaldu diete.

Berrikuntzak berrikuntza, «jende berriak ere esan digu aurten izena emango zuela, baina jakina, hauek oinarrikoak diren fandangoa eta arin-arina ikasi nahi dituzte».

Honegatik guztiagatik, oraindik izena ematen duten guztien arteko taldeak nola antolatuko dituzten erabaki ez duten arren, dantza gehiago lantzeko jauzia eman nahi izan du Udaberri.

Izena emateko epea zabalik dago Udaberriren web orrian (www.udaberri.com); bertara sartu eta izen-emate formularioa bete beharko dute dantzan ikasi nahi duten guztiek. Ikastaroak Usabal kiroldegian izango dira, asteartero, 20:30etik aurrera, eta hileroko kuota 10 eurokoa izango da (ikasle eta langabetuentzat 5 eurokoa).



2011ko ekainean ekitaldi berezia egin zuten, Bonberenearen ordurarteko ibilbidearen erreposo moduan. R. CALVO

Hamarkada bat igaro da, San Esteban auzoko estudio txikian lehen diskoa grabatu zuten geroztik. 'Bonberenea Ekintzak 2002-2012, Doinuen Hamarkada' liburua argitaratu dute, zigiluaren urteurrena gogora ekarriz.

Hamar urteko kultur jarria, liburu batean

Itzea Urkizu

Hasiera gehienak aldapatsuak izan ohi diren arren, gauzek beren bidea hartzen dutenean, arin pasatzen da denbora. Horixe gertatu zaio Bonberenea Ekintzak zigiluari, eta hamar urte bete ditu jada; urtemuga hau, eta kaleratu dituzten disko nahiz liburu sorta osoa biltzeko, *Bonberenea Ekintzak 2002-2012, Doinuen Hamarkada* liburua argitaratu dute.

2002. urtean hasi ziren, Bonbereneako kideak, lehen grabaketak egiten, «estudio oso-oso prekariora batean», Juantxo Arakamak azaldu duenez. Hamar urteko lanaren ondoren, ordea, 40 disko baino gehiago argitaratu dituzte jada, eta baita lauzpabost liburu ere; Euskal Herriko kultur arloan bere txokoa egin duen zigilua da, beraz, Bonberenea Ekintzak.

Bilduma bat baino gehiago

Finean, Bonberenea Ekintzak plataformak, azken hamarkadan egindako lanaren erreposo da *Bonberenea Ekintzak 2002-2012, Doinuen Hamarkada* liburua.

Lan hori guztia gogora ekartzeko bidean, ordea, material mordera erabili dute argitalpen berezi honetarako. Batetik, Bonbereneako estudioan orain arte burutu-

tako grabazio guztien katalogoa ikusi ahal izango du irakurleak, diskoen azalekin; erreferentziak eta zenbait azalpen ere gehitu ditzutela argitu du Arakamak. Era berean, eta Bonberenea Ekintzak plataformaren historia, ibilbidea, filosofia nahiz mugimenduen hastapenen inguruko testu batzuk ere txertatu dituzte.

Paperean imprimatutako materialarekin bukatzeko berriz, Bonbereneako kideek txoko berezia eskaini diote Karlos Osinaga *Trap-i*. Hamar urte hauetan zehar argitaratutako grabazio ia guztietan teknikari moduan aritu da bera, eta liburuan elkarrizketa egin diote: «Oso ondo azaldu du Bonberenea Ekintzak plataformaren funtzionatzeko era zein den».

Bonberenea Ekintzak plataformak emandako fruiturik nabarmenenak musika taldeenak izan direnez, ordea, hamarkada gogora ekartzeko prestatutako katalogo berezi honek, ikus-entzunezko materiala ere bildu du. Horrela beraz, batetik, bi audio disko dauz bilduman; Bonberenean orain arte argitaratutako disko bakoitzetik abesti bana aukeratu dute bertan txertatzeko, eta honenbestez, 40 kantu inguru entzungai izango dira.

Horrez gain, azken urteotako zuzeneko emanaldietan egindako grabazioekin DVD bat findu

dute; Berri Txarrak, Zea Mays, Inoren Ero NI, Lisabó, We are Standard eta Willis Drummond taldeak Bonbereneako oholtzan ikusi ahal izango dira bertan. Azkenik, bigarren DVDan, beste 16 bideoklip argitaratu dituzte.

Lanaren fruitua

Juantxo Arakamak garrantzia berezia eman dio, azken hamar urteotan Bonberenearen inguruan lanean aritu den jende guztiaresortzeari: «Babesa oso ondo dago, eta kultur arloko jendea Bonberenearen proiektuaren alde dagoela jakitea onargarria da. Hala ere, garrantzitsuagoa da barruko lana. Liburuan ikusten den hori guztia ahalbidetu duena, bertakoen lana izan da».

2002. urtean hasitako laneak eman dute beren fruitua, eta grabazio estudio berria prestatu dute duela gutxi. Epe luzera begira proiekturik ez duten arren, Bonbereneak beti horrela funtzionatu izan duela azaldu du Arakamak: «Eboluzioaren alde jokatu izan du beti, aurrerapausoak emate horren alde. Estudioa, beraz, horretara dator, eta hastepentetan estudio oso-oso prekariora zen hura, baliabide askoz ere hobek dituen estudio bilakatu da».

Argitalpen berria eskuragarri da jada, Bonberenean bertan, eta Durangoko azokan ere jarriko dute postua.

Egin HITZAko harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI



eta...

... HITZAren harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu



hitza

harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

Gazteek norbanakotik kolektiborako jauzia eman nahi dute

Tolosako kultur etxean egingo dute hurrengo batzarra azaroaren 11n, igandean, 16:30ean hasita

Asier Imaz Tolosa

Tolosan, eskualdeko beste hainbat herritan bezala, gazte antolakunde berri bat eratzeko lehen urratsak ematen ari dira, Zukgua izeneko prozesuaren bidez. Independentziaren aldeko eta ikuspegi ezkertiarreko gazte osatu nahi dute antolakunde berria, «norbanakotik kolektiborako jauzia emanaz». Horren beharra agerikoa dela diote, baina lehenik, zer nolako izan behar duen eztabaidatu beharra dagoela gai-

neratzen dute. Horretarako, argi dute guztiak direla garrantzitsuak, «tantaka sortzen baita uholdea».

Tolosan dagoeneko bi batzar egin dituztela azaldu dute Zukgua prozesuko dinamizatzaileek: «Antolatu diren bi eztabaidetan 30 bat pertsonen hartu dute parte, besteak beste, munduko egoera orokorraren inguruan gazteok zein jarrera hartu beharko genukeen azaleratuz. Eztabaida dinamikoak, irekiak eta zabalak dira, ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoarekin planteatutakoak». Hirugarren batzarra igandean honetan izango da, azaroaren 11n, Tolosako kultur etxean. Gazteek 16:30ean jarri dute hitzordua, eta orain arteko partaide kopurua areagotzea gustatuko litzateke: «Datozen eztabaidetan

parte hartzaile kopurua handitzeko ezinbestekoa da prozesua ahoz aho zabaldu eta beldurrak alde batera utzita, norberak bere ideiak partekatzea. Asko dugu elkarrengandik ikasteko eta asko dugu egiteko».

Igandeko batzarrean, Euskal Herriko ziklo politikoaren azken urteetako bilakaeraz hitz egingo dute. Eztabaida aberasgarri bilakatzea «denon esku» dagoela aipatu dute, eta euren ideiei zukua ateratzera gonbidatu dituzte gazteak.

Gazteek bizi duten «etorkizun beltzaren aurrean», bi aukera ikusten dituzte prozesuaren bultzatzaileek: «Norbere ziborrari begiratuta inguruko guztiak etsai bilakatu, edo modu kolektiboan antolatu eta sinesten duzun horren alde borrokatu».

Aizkardiren V. Argazki Rallya, hilaren 11n

A. Imaz Villabona

Villabonako Aizkardi Mendi Elkarte 29. Mendi Astea prestatzen ari da. Azken urteetan bezala, aurten ere argazki rallya antolatuko dute, eta lehiaketako alde batera utzita, norberak bere ideiak partekatzea. Asko dugu elkarrengandik ikasteko eta asko dugu egiteko».

Igandeko batzarrean, Euskal Herriko ziklo politikoaren azken urteetako bilakaeraz hitz egingo dute. Eztabaida aberasgarri bilakatzea «denon esku» dagoela aipatu dute, eta euren ideiei zukua ateratzera gonbidatu dituzte gazteak.

egunean bertan eman beharko du Larrea auzoan dagoen Aizkardi Aretoa, 09:00etatik aurrera. Ondoren, lau orduko epea edukiko dute partaideek 9 kilometroko ibilbideak argazkiak ateratzeko. Mendi itzulia zein izango den Aizkardik jakinaraziko die egunean bertan. Rallyan parte hartzeko ez da dirurik ordaindu behar, aldiz, argazki onenek sariak jasoko dituzte. 12 urtetik beharagoentzat sari bereziak egongo dira.

Gaur eta bihar hitzaldiak antolatu dituzte

A. Imaz Anoeta

Anoetan gaur hasiko da Kultur eta Kirol Astea eta lehen ekitaldia izango da. Herritar guztiei irekia da, eta 18:30ean hasiko da udaletxean. Ohiko larrialdien egoera baten aurrean nola jokatu azalduko dute bertan.

Bihar, hilak 8, *Elikaduraren burujabetza eta emakumeen parte hartzea lehen sektorean* gaia aztertuko dute Ebeleko bi kidek: Begoña Aristik eta Maider Aramendik. Hitzaldia 19:30ean hasiko da udaletxeko areto nagusian.

Anoetako Udaletik herritar guztiak bi hitzaldietara gonbidatu dituzte.

Euskara sustatzeko cricket jardunaldia antolatu dute

Villabonako Behar Zana frontoian hainbat kulturen arteko aisialdia bultzatuko dute ostiralean

A. Imaz Villabona

Banaiz Bagara elkarteak cricket jardunaldia antolatu du azaroaren 9an, ostiralean, Villabonako Behar-Zana frontoian, 19:30ean. Hainbat herrialde eta kulturen arteko aisialdia bultzatzea eta euskara sustatzea dira ekimen honen helburu nagusiak.

Billabonarrek cricket kirola ezagutu eta etorkinek euskaren munduan murgiltzeko aukera izatea bilatzen dugu egitasmo honen bitartez Banaiz Bagara el-



Cricketa gertutik ezagutzeko aukera egongo da Villabonan. HITZA

karteo kideek. Honen ondorioz, elkartrukea aurrera ateratzeko, herritar guztiak gonbidatu dituzte tailer honetan parte hartzera, eta beste herrialdeetako pertsonen esperientzia berriak bizi-

tzera: «Kirol berri bat ezagutu, ariketa fisikoa egin eta lagun berriak ezagutu nahi dituen orori gure gonbidapena bidaltzen diogu cricket jardunaldian parte hartzeko».

Irudia Anoeta



GAZTETXEKO DOINUAK

Pasa den ostiralean kontzertuak antolatu zituzten Anoetako Gaztetxean. Krauss eta Hira taldeen doinuez gozatu ahal izan zuten bertaratu zirenek. Krauss taldea 2009an Mutrikun sortutako metal talde gaztea da, eta 2011ko abenduan grabatutako maketako abestiak eskaini zituzten ostiralean. 1998. urtean sortu zen Hira taldeak, berriz, iaz kaleratutako hard-rock doinuek nagusi dituen *De-lay* izeneko diskoko abestiak eskaini zituzten. ANOETA KO GAZTE ASANBLADA



San Martin eguna
Amezketan

Txandok iraberran
aurreko berria San Martin
eguna ospatuko da
Barkat edema
Inkizonekin jarra

Herrirak
(Barkat, bertu, Onda)
943 653 197
telefonoz

Mauka **GAURKO ESKAINTZA**

Luz Ardiden
eta Cauterets:
4 eguneko forfait-a

91€
22,75 €-an egunean

www.mauka.eu

berria

Kultur ekitaldien aukera zabala eskualdean

Adunan eta Amezketan kultur asteak dituzte berehala, eta Gaztelun kultur asteburua antolatatu dute

Imanol Garcia Landa

Udazkenean kultur ekitaldi ugari antolatatu ohi dira eskualdean. Horren adibide dira datozen egunetan Adunan, Amezketan eta Gaztelun egingo diren ekitaldiak. Adunan datorren astelehenean hasi eta hilaren 18an bukatuko dira ekitaldiak. Hainbat hitzaldi prestatu dituzte eta azken egunean Axeri Dantza saioa, kantu jira eta barrikotea izango dituzte, Lo-

atzo musika eskolakoek alaiturik. Besteak beste, Irrien lagunak Kluba izango da, txikien gozamenarako.

Amezketan San Martin egunaren inguruan antolatzen dute kultur astea. Ostiralean hasiko da hitzaldi batekin; datorren astean ere hainbat gai jorratuko dituzten hitzaldi sorta izango da. Larunbat honetan haurren eguna izango da eta igandean erretirodunena.

Hilaren 18an bukatuko dira ekitaldiak, azokarekin; gainera, egun horretan arroz-esne lehiaketa izango da. Kultur asteak irauten duen bitartean, Sara Gomez eta Othmane Dedahen argazki erakusketak ikusgai izango dira.

Haurren egunerako, lehenengo aldiz Herri Kros Txikia antolatuko dute. Hiru talde egin dituzte: 2005 eta 2006 urteetan jaiotakoak, 2003 eta 2004 urteetan jaiotakoak, eta 2000, 2001 eta 2002 urteetan jaiotakoak. Maila bakoitzeko aurreneko neska eta mutilentzat sariak izango dira. Izena aurrez Zumadi eskolan eman daiteke eta egunean bertan, 11:00etatik 12:00etara, udaletxean.

Gaztelun asteburu honetan izango dituzte ekitaldiak eta Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartea izango da elkargune nagusia. Ekitaldien artean, bi bazkari eta afari bat egingo dituzte. Igandean azoka izango dute eta bertako produktu eta tresnak erakutsiko dituzte.

Manu Azkaratek azaroaren 13an du bigarren epaiketa

Frantziako Tolosako epaitegian egingo diote, aurrekoaren erabakia Kasazio Auzitegiak atzera bota eta gero

I. Garcia Landa Tolosa

Manu Azkarate tolosarrak epaiketa izango du azaroaren 13an, Tolosan (Frantzia). Espainiako Auzitegi Nazionalak egindako estradizio eskaerari erantzunez, Frantziako justiziak egiten dion bigarren epaiketa izango da. Aurreko epaiketa Pauen izan zen, eta epaitegiak baiezkotzea eman zion estradizio eskaerari. Baina Azkaratek jarritako helegitearen alde egin zuen Kasazio Auzitegiak eta ez zuen ontzat eman Paueko epaitegiaren erabakia, forma akatsak izan zirelako. Orain, beraz, bigarren epaiketa izango da eta prozesu guztia berri izango da.

Azkaratek berak azaldu duenez, «epaia egun gutxitara emango dute, ziur aski abendurako. Epaitegiaren epaia ez da behin betikoa izango, hau da, berriro he-



Manu Azkarate. HITZA

gitea jartzeko aukera izango da. Beraz, prozesua zenbait hilabetez luzatuko da». Defentsaren argudioei dagokionez, Azkaratek azaldu duenez, aurreko epaiketan Paueko epaitegiak onartu ez zituenak berriro aurkeztuko dituzte. Batetik, bere kasua medikuntza auzitegiak aztertzea, eta bestetik, betetako zigorraren denborari buruzko informazioa erkatzea. Espainiako Auzitegi Nazionalak esaten duen denbora kopurua eta Manu Azkarateren defentsak esaten duena ez baita berdina.

↓ EGITARAUAK

ADUNA

AZAROAK 12, ASTELEHENEA

■ **19:30.** *Sua* filmaren emanaldia, kultur aretoa, Eneko Aritzta elkartearen eskutik.

AZAROAK 13, ASTEARTEA

■ **19:30.** *Gipuzkoaren jatorria eta historia* hitzaldia, Aritzta kultur elkarteak aurkeztuta, kultur aretoa.

AZAROAK 14, ASTEAZKENA

■ **17:00.** Gurutz Garmendia ipuin kontalariaren saioa, *Euskal mitologiaren ipuinak* izenburupean, Elordi plazako aretoan.

■ **19:30.** Solasaldia *Aniztasuna eta Migrazioa* izenburupean, Haizea Arrutik (Anitzak) eta Mikel Luloagak (Bai Euskal Herriari) azalduta, kultur aretoan.

AZAROAK 15, OSTEGUNA

■ **19:30.** Axeri Dantzari buruzko hitzaldia (Aduna-Andoain), kultur aretoan.

AZAROAK 16, OSTIRALA

■ **19:00.** *Euskal Nortasun Iku-rrak* hitzaldia Iñaki Egaña historialariarekin, kultur aretoan.

■ **21:30.** Euskal Herriko V. Mus Txapelketaren Adunako kanporaketa egingo da Txulobi elkartearen Baliagarria Gipuzkoakora sailkatzeko. Sari bikainak.

AZAROAK 17, LARUNBATA

■ **09:30.** Herriko plazatik abiatuta, *Ingurumenarekin ardurata mendi marxa* ibilaldia. BULandegiko minak, karobia, ur araztegia... bisitatuko dituzte.

■ **16:30.** Irrien Lagunak Kluba. Ondoren, txokolate jatea eta merienda erraldoia.

AZAROAK 18, IGANDEA

■ **12:00.** Axeri Dantza saioa.

■ **12:30.** Kantu jira.

■ **12:45.** Barrikotea, ardoa, taloak, gaztaina erreak eta erromeria Loatzu musika eskolako ikasle eta irakasleek alaiturik.

AMEZKETA

Kultur astean, Sara Gomezzen *Margarita* eta Othmane Dedahen argazki erakusketak ikusgai kultur etxean. Azaroaren 9ko hitzaldia eta gero, aurkezpena.

AZAROAK 9, OSTIRALA

■ **19:00.** *Mendebaldeko Saharar herriaren gatazka*, Beñat Hachen eskutik hitzaldia kultur etxeko aretoan.

AZAROAK 10, LARUNBATA

■ **12:00.** I. Herri Kros Txikia. Ondoren, umeen bazkaria.

■ **16:30.** Poxpolo ta Konpainia, frontoian. Gero, txokolate jatea.

■ **19:00.** Ardoz, gazteen abesbatza, San Bartolome elizan.

■ **21:00.** Afaria Ugarteko elkartearen (txartelak tabernetan).

AZAROAK 11, IGANDEA

■ **11:15.** Meza San Martin ermitan. Ondoren, Xapre eta Zaharra eta bertsolariak.

■ **14:00.** Erretirodunen bazkaria Behartzanen, trikitilari eta bertsolariarekin.

AZAROAK 12, ASTELEHENEA

■ **19:00.** Irrintzi ikastaroa Amaia Garciairekin.

AZAROAK 13, ASTEARTEA

■ **17:00.** *Bizitza autonomorako trebetasunak* hitzaldia, erretirodunentzat, kultur etxeko aretoan.

■ 20:30. *Gazta zati bat* filma.

AZAROAK 14, ASTEAZKENA

■ **20:30.** *Bolivia 2012*, Luis Sagastume mendizalearen eskutik, kultur etxeko aretoan.

AZAROAK 15, OSTEGUNA

■ **20:30.** *Amaiur gaztelua eta Nafarroako konkista*, Juantxo Agirrearen eskutik kultur etxeko aretoan.

AZAROAK 16, OSTIRALA

■ **19:30.** *Transpirenaika bizikletan*, Asier Bernarresen eskutik, kultur etxeko aretoan.

■ **20:30.** Patata tortilla lehiaketa. Udalak ardoa jarriko du. Ordu horretarako prest izan behar dira tortillak.

AZAROAK 17, LARUNBATA

■ **11:00.** *Amezketan pilota tantoz-tantoz*, Joxe Mari Oterminen hitzaldia, kultur etxeko aretoan.

■ **12:00.** Txakolin dastatzea.

■ **16:00.** Mus txapelketa. Izen ematea 15:30ean hasiko da.

AZAROAK 18, IGANDEA

■ **10:30.** Azokaren hasiera. Aurretan, arroz-esne lehiaketa.

GAZTELU

AZAROAK 10, LARUNBATA

■ **13:00.** Haurren bazkaria.

■ **16:30.** Umeentzako jolas-tailerak Erroizpe Azpiko elkartearen.

■ **19:00.** *Gazta zati bat* filma.

■ **21:00.** Kantu afaria, Erroizpe Azpiko elkartearen.

AZAROAK 11, IGANDEA

■ **10:00.** Azoka goiz osoan zehar: bertako produktuak, tresnak...

■ **13:30.** Erretirodunentzat bazkaria, Erroizpe Azpiko elkartearen.

Bizikidetzari buruzko ikastaroa emango du Baketik-ek Tolosan

Helburua Ikuspegi eraikitzailea partekatzea eta bultzatzea da; izena emateko aukera zabalik dago

I. Garcia Landa Tolosa

Bizikidetzaren ikuspegi eraikitzailea partekatzea eta bultzatzea helburu duen ikastaroa bultzatuko du Baketik-ek Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiak babesten du ekimena. Programa, besteak beste, Tolosan eskainiko da. «Egungo testuinguruan gizaratek bizikidetzaren ikuspegi eraikitzailea partekatzea eta bultzatzea beharra dauka», azaldu du Baketik-ek. «Hauxe da formazio-programa honen zergatia eta helburua».

Orokorrean, programa bizikidetzakontuetan kezka dituen

edozein pertsonari dago zabalik. Bereziki, irakasleei, aisialdiko begiralei, elkarteetako arduradunei, udal teknikariei, gizarte hezitzailei, gizarte langilei eta bizikidetzakontuetan erantzukizuna duten kargudunei, politikariei edo profesionaleri zuzendua dago. Formazio-programa bost modulutan antolatuta dago. Tolosan lehenengo hiruak hilaren 14ean, 21ean eta 28an, 18.30etik 21.00etara, emango dira kultur etxean. Horren ondoren, abenduaren 1etik 13ra, tutoretzapean lan bat egin eta aurkeztu beharko da. Azken modulua abenduaren 15an egingo da, 10:00etatik 12:30era, Donostian. Ondorioak eta aurkeztutako lanen bateratzea-lana eta ebaluazioa egingo da.

Ikastaroa doan da, eta izena emateko Baketik-ekin harremanetan jarri behar da, 943 25 10 05 telefono zenbakira deituz, info@baketik.org helbidera idatziz edo www.baketik.org webgunean sartuz.

✉ **Gutuna****A-14: Beharrezkoa da ELA eta LABek greba orokorra deitzea**

Testu hau idazten den uanean, Europako langile klasearen mobilizazio handia lotzen ari dira azaroaren 14rako; greba orokorra Estatus espainiarrean, Portugalen, Belgikan, Grezian, Txipren eta Maltan, lau orduko lanuzte orokorra Italian, eta mobilizazioak Irlandan, Alemanian, Austrian, Errumanian eta Estatu frantziarrean.

Historian lehendabiziko aldiz, kapital europarrak agindutako murrizketa sozial eta herstura politikoen aurka borroka egun bateratua antolatu da, eta milioika gazte eta langilek hartuko dute parte. Aurrera pauso garrantzitsua dela uste dugu eta mahai gainean jartzen du beharrezkoa dela langile klasea eta zapalduak muga nazionalen gainetik elkartzea, internazionalki antolatuta dagoen sistema kapitalistari aurre egiteko modu bakarra baita.

Horregatik, borroka europarraren deialdi honen aurrean, kontuan hartuz gainera greba orokorren deialdiei esker Portugalgo, Galizako, Kataluniako eta Estatu espainiarreko langileak kalera masiboki aterako direla, zer jarrera hartu behar dugu Euskal Herriko langileok? Zer irabazten eta zer galtzen dugu Euskal Herriko langileok greba orokor honetan parte hartuta?

Euskal burgesiak ez du dudarik egin gobernu espainiarrekin eta Europako Batasunarekin, burgesia espainiarrekin eta europarrarekin aliatzeko. Burgesia elkartuta badago langile mugimenduaren aurkako ekintzan, langileok ere beharrezkoa dugu gure indarrak elkartzea. Langileen zatiketarik onura ateratzen duten bakarrak bankariak eta enpresariak dira, bai euskal herritarrek, bai espainiarrek, frantziarrek edo europarrak.

Azaroaren 14a aukera bikaina da Euskal Herriko langile klase-ak kolpe bat emateko gure

etsaiei aldi berean, modu bateratuan, Portugalgo, Galizako, Kataluniako, Estatu espainiarreko, Greziako, Belgikako eta beste hainbat herrialdeetako langileekin. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela ELA eta LABeko zuzendaritzek hartutako erabakia zuzentzea eta greba orokorra deitzea azaroaren 14an. Mobilizazio hau babestek ez du esan nahi UGT eta CCOOeko agintarien politika sindikala defendatzea. Beste askoren artean ERCK (Esquerra Republicana de Catalunya), AGEK (Alternativa Galega de Esquerda), CIGk (Confederación Intersindical Galega) edo SATek (Sindicato Andaluz de Trabajadores) egin duten bezala, azaroaren 14ko greba bultzatzeak burgesiaren erasoan aurkako langile klasearen mobilizazioa babestea esan nahi du, ez besterik.

Borroka bateratuak ez du esan nahi sindikatu batek, kasu honetan ELA eta LABek, bere aldarrikapenak alde batera utzi edo gainerako sindikatuak kritikatzeari utzi behar dionik; guzti aurkakoa, hori posible da eta beharrezkoa gainera. Burgesia europarraren eraso bateratuen aurrean, beharrezkoa da langile mugimendua elkartuko duen politika defentsiboa. Taktika honek, aldarrikapen zehatzen defentsan hitzartutako ekintzen bidez, etsai komunaren aurka borrokatzeko balio du, sindikatu bakoitzak independentzia osoa mantenduz.

■ **Ibon Artola**, Euskal Herria Sozialistaren izenez.



Sahararren aldeko elkarretaratzea egingo dute bihar



Maizteko elkarretaratzea, Maiztza Borrokan ekimenaren barruan. HITZA

Tolosaldea Sahararekin elkarretaratzea egin du deia; 19:00etan elkartuko dira Tolosako Trianguloko plazan

Rebeka Calvo Tolosa

Azaroa hilabete «beltza» da saharar herriarentzat, Tolosaldea Sahararekin elkarretaratzea gogoratu duenez. Izan ere, eta besteak beste, Marruekoek Martxa Berdea bezala ezagutzen dena egin zuen hilaren 6tik 19ra.

Elkarretaratzea azaroko gertaera guztiak gogora ekartzeko eta Saharako herriaren autodeterminazio eskubidea eta independentzia defendatzeko elkarretaratzea egingo du, bihar.

Tolosaldeko herritar guztiak gonbidatu dituzte 19:00etatik aurrera Tolosako Trianguloko plazan egingo duten mobilizaziora, eta bertan, Gdeim Izik kanpalekuan izandako iraultzako bideoak ikusi ahal izango dira.

Tolosaldea Sahararekin elkar-

retaratzea gogoratu duenez, azaroa hilabete «beltza» da sahararrentzat. Hilaren 6tik 19ra Martxa Berdea bezala ezagutzen dena pairatu zuten; 1975. urteko azaroaren 14an Espainiak, Mauritaniak eta Marokok hiruko hitzarmena sinatu zuten, eta ondorioz, «Espainiak herri sahararra Marokoko errege hiltzailearen eskutetan utzi zuen».

Era berean, 2010eko hilaren 8an Marokoko errepresio indarrek sahararrek Aaiun inguruan 20.000 bat pertsonen osatutako Gdeim Izik kanpaldian era oldarkorren sartu eta sarraskia eragin zuten. «Kanpaldi hau giza eskubideak eta herri sahararren askatasuna eskatzeko eratu zuten. Zenbait analista politikok kanpaldi hau *arabiar udaberriaren* hasiera bezala ikusten dute», azaldu dute elkarretaratze kideek.

Hilabete honetan izandako gertaera gogorak gogora ekartzeko eta Sahararen alde egiteko beraz, elkarretaratzea Tolosaldeko herritar guztiak gonbidatu dituzte Tolosaldea Sahararekin elkarretaratze kideek.

Oargi taldeak mendi irteera antolatu du azaroaren 16tik 18ra

R. C. Tolosa

Tolosako Oargi mendi taldeak azaroaren hirugarren astebururako irteera antolatu du. Hiru Erregeen Mahaira eta Chinebral de Gamueta joango dira.

Horiek horrela, azaroaren 16an, ostiralean, Tolosatik irteera dira Linzako aterpetxean lo egiteko, eta hurrengo egunean, larunbatean, Hiru Erregeen Mahaira igoko dira. Igandean, azaroak 18, Chinebral de Gamueta mendira igoko dira.

Izena emateko 688 69 86 42 telefonozenbakira deitu behar da edo info@oargi.org helbidera idatzi. Azken eguna azaroak 13 izango da. Izena ematerakoan 20 euro aurreratutako behar dira ondorengo kontuan: Euskadiko Kutxa 3035 0028 11 0281141038.

Harkaitz Zubiriren 'Etxekalte', Galtzaundiren irakurle taldean

R. C. Tolosa

Galtzaundi Euskara Taldearen irakurle taldearen hurrengo hitzordua bihar bertan izango da. 19:30ean elkartuko dira Tolosako kultur etxean eta Harkaitz Zubiriren *Etxekalte* izango dute hizketagai.

Zubiriren liburuak bizitza gurrutzatutako dituzte; krisi ekonomikoaren eta sozialaren garaian krisi pertsonal eta intimoa trabatu diren pertsonaiek ihes egin nahi izango dute porrot gordinari.

🎯 Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



JORGE RODRIGUES

(Suitzan hil zen,
2012ko azaroaren 5ean)



Eldu Eraikuntza Metalikoko lankide ohiak

Ibarran, 2012ko azaroaren 7a



GOIZA	LAINTUTUA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Irudia Tolosa



CAMINOS, BIKE TRIALEKO TXAPELDUNA

Tolosako Irene Caminos gaztea zorionekoa da. Euskadiko Bike Trial Txapelketa egin berri da, eta bertan tolosarrak emaitza bikaina lortu du lehen

postua eskuratuz. Iaz ere txapelketa bera irabazi zuen gazte tolosarrak. Caminosek Arsuaga Bizikletak-rekin osatzen du taldea. HITZA

Agurak



Zorionak!

Uxue Aizpurua (Asteasu).
Zure 10. urtebetetzean zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurak**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan, gaur, ohiko larrialdien eta hauekiko jokaeren inguruko hitzaldia 18:30etik 20:30era udaletxean. DYA Gipuzkoako kideek emango dituzte azalpenak.

■ **Tolosa.** Beti Gazteak Amarozko erretirodunen elkarteak bi ikastaro antolatu ditu egoitzan egiteko. Josteari buruzkoa atzo hasi zen eta eskulanetakoa gaur hasiko da, 16:00etan. Ikastaro bakoitza 40 ordukoa da eta 42 euro ordaindu behar dira. Izena emateko edo informazio gehiagorako 653 747 192 (Joxe) edo 635 757 786 (Katy) telefono zenbakietara deitu behar da.

■ **Tolosa.** Gure kaiola elkartearen azaroaren 18ko babarrun lehiaketan parte hartu nahi dutenek hilaren 9a baino lehen eman behar dute izena aiglesiassi@hirukide.org helbidean.

■ **Tolosa.** Txinparta elkarteak antolatzen duen Nork Txapela Hobeto Jantzi lehiaketan parte hartu nahi duenak, 699 169 243 telefonora deitu behar du.

■ **Amasa.** San Martin jaietako ekitaldiak asteburuan hasi diren ere txupinazioa gaur izango da, 19:30ean. Martina Sorginaren jaitsiera egingo dute eta buruhandiak izango dira.

■ **Tolosa.** Bidaia-erri Txokoak antolatutako emanaldien barruko lehen ekitaldia, gaur, 19:30ean. Angel Fernandezek *Nouristan* '75 hitzaldia eskainiko du, gaztelaniaz. Fernandezek 1975ean Antxon Bandresekin eta beste bederatzi pertsonekin batera Afganistanera egindako bidaiaz hitz egingo du.

■ **Villbona.** Mintzolako *Aho Bete* Hotsjardunaldiak hasiko dira gaur. Besteak beste, Manex Fuchs, Ainara Gurrutxaga, Itziar

Ituño, eta Ximun Fuchsane izango dira hizlariak goizean zehar. 11:45etik 13:00era *Juglarena, puta eta eroa* antzezlan ikusi ahal izango da Petik Theatre de Pain konpainiaren eskutik.

ERAKUSKETAK

■ **Larraul.** Karmele Pellejeroren lanak, ostatuan. Era berean, Koldo Jauregiren aho soinuen bilduma museo etnografikoan.

■ **Tolosa.** Mariona Masgrau txontxongilo sortzailearen 110 pieza biltzen dituen *Bidaia bat txontxongiloen mundura*, Topic zentroan.

■ **Tolosa.** Box.A elkartearen Pornografia erakusketa, Aranburu jauregian, azaroaren 9a bitarte.

■ **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan gaurtik hilaren 18ra bitarte, Hodeien seme-ala-bak, giza eskubideen egoera mundubaldeko Saharan erakusketa ikusi ahal da, kiroldegian. Euskal Fondoak jarri du eta astelehenean ostiralera 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era ikusi daiteke, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zaballarreta, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.
■ **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta irtizien erantzukizunik.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu



Azaroak 11 • Igandea
18:00
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Unicaja
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.

